



2025 ORDIZIA MENDI LASTERKETA TRAIL RUNNING EUSKADIKO TXAPELKETA EAF-FVA

LASTERKETAREN ARAUDI OROKORRA

1.- DATA ETA LEKUA


Ordiziako Mendi Lasterketa 2025eko otsailaren 16an egingo da goizeko 10etan. Irteera eta amaiera puntua Ordiziako plaza izango da.

Aurten lasterketa honek, Trail Running Euskadiko Txapelketa izango da apirilaren 12 eta 13an Ibiza-n (Balear uharteak) egingo den RFEAko Autonomien arteko eta banakako Espainiako Trail Running Txapelketan parte hartuko duten atletak hautatzeko balioko du.

2.- IBILBIDEA

Edizio honetan hiru ibilbide izango ditugu:

MARATOI ERDIA (21 Km): Maratoi erdiko ibilbidea da, 1.000 metroko desnibel positibo eta negatiboarekin. Hau da absoluto mailako atletek egingo duten ibilbidea, baita distantzia hori egin nahi duten pertsona guztiek ere.



ORDIZIA 14K (14 Km): 14 kilometroko ibilbidea da, 600 metroko desnibel positibo eta negatiboarekin. Hau da 23 urtez azpiko kategorian parte hartzen duten atletek egingo duten ibilbidea, baita distantzia hori egin nahi duten pertsona guztiek ere.



2025 ORDIZIA MENDI LASTERKETA
TRAIL RUNNING EUSKADIKO TXAPELKETA EAF-FVA
ORDIZIA 8K (7,8 Km): 7,8 metroko ibilbidea da, 400 metroko desnibel positibo eta negatiboarekin. Hau da 20 urtez azpiko, 18 urtez azpiko eta 16 urtez azpiko kirolariek (2011n jaioak eta aurrekoak) egingo duten ibilbidea, baita distantzia hori egin nahi duten pertsona guztiek ere.

3.- KATEGORIAK

21K lasterketaren kategoriak hauek izango dira: Master+45, Seniorrak, -23 eta Ordiziarak mutiletan eta Master+40, Seniorrak, -23 eta Ordiziarak nesketan.

14K eta 8K lasterketek sailkapen orokor bat izango dute.

4.- IZEN-EMATEA ETA PREZIOA

Izen-ematea www.kronoak.com webgunean egingo da. EZINGO DA LASTERKETA EGUNEAN IZENIK EMAN.

Prezioak:

- 21K: 25 euro urtarilaren 31 arte. Otsailaren 1etik aurrera 35 €.
- 14K: 20 euro urtarilaren 31 arte. Otsailaren 1etik aurrera 30 €.
- 8K: 10 euro urtarilaren 31 arte. Otsailaren 1etik aurrera 20 €.

***Ez da izenemateen itzulketarik egingo.**

5.- SEGURTASUNA

Antolakuntzak ardura zibileko eta istripuko aseguruak izango ditu. DYArekin laguntza izango dugu.



2025 ORDIZIA MENDI LASTERKETA
TRAIL RUNNING EUSKADIKO TXAPELKETA EAF-FVA
Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.

6.- HORNIDURA

Ano postuetan jan eta edateko, korrikalari bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du eta berau beteko da.

Antolakuntzak 3 ano postu jarriko ditu: ura, fruta (platanoa eta laranja) eta Victory Endurance markako gelak (Energy Up).

Hornidurak 21K-ko 5-10-15 Km-etan egongo dira, 14K-ko 5-9 Km-etan.

7.- SEINALEZTAPENA

Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da, kartel adierazleekin baita distantzia ere.

8.- SAILKAPENA

Sailkapena kronoak.com webgunean argitaratuko dira behin azken parte-hartzailea iritsitakoan.

9.- SARIAK

Egun berean banatuko dira sariak (13: 00ak inguruan, parte-hartzaile guztiak iritsi ondoren).

21K herri lasterketako sariak hauek izango dira:

1. postua: 100 euro eta garaikurra.



2025 ORDIZIA MENDI LASTERKETA TRAIL RUNNING EUSKADIKO TXAPELKETA EAF-FVA

2. postua: 50 euro eta garaikurra.

3. postua: 30 euro eta garaikurra.

Masterrek, 23 urte azpikoek eta ordiziarrek garaikurra izango dute.

14K eta 8K lasterketak sailkapen orokorreko sailkatuek garaikurra izango dute.

10.- DORTSALEN BANAKETA

Dortsal guztiak zuzenean emango dira irteera-gunean, Ordiziako plazan, goizeko 8:00etatik aurrera.

Derrigorrezkoa izango da NANA aurkeztea dortsal-txipa jasotzeko.

11.- IRTEERA ETA HELMUGA

21K eta 14K lasterketetarako irteera bateratua izango da. Irteera eremua lasterketa baino 5 minutu lehenago irekiko da.

8K lasterketa 15 minutu beranduago irtengo da (10:15ean).

Lasterketa bakoitzerako gehieneko denborak honako hauek izango dira:

21K: 2:00 H MURUMENDI KM 14

3:00 H 21 KM-KO HELMUGA

14K: 2:00 H 14. KM-KO HELMUGA

8K: 1:00 H 7,8 KM-KO HELMUGA



2025 ORDIZIA MENDI LASTERKETA TRAIL RUNNING EUSKADIKO TXAPELKETA EAF-FVA

12.- INGURUGIROA

Lasterketa mendi inguru zein lur pribatuetatik igaroko da. Ingurunea ahal beste zaintzeko, kontrol-guneetatik kanpo zaborrak ez botatzeko eskatuko zaie partehartzaile guztiei. Horretarako, 25 metrora, zabor kuboak jarriko dira.

Oinarrizko arau hau betetzen ez duten korrikalariak, probatik kanpo utziko dira.

13.- KONTSIGNA ETA DUTXAK

Kontsigna zerbitzua Hellmuga eremuan izango da. Dutxa zerbitzua Majori-Altamira kirol eremuan izango dira.

14.- IBILBIDEAREN SEGURTASUNA

Antolakuntzak, proba ordezeko ibilbide batetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak edota beste eragileren batek hala eskatzen badu, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.

15.- LAGUNTZA EZBEHARRETAN

Partehartzaileek betekizun izango dute istsripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.

16.- ERANTZUKIZUNA

Proban izena ematen duten guztiek, borondatez eta norbere arduraz parte hartzen dutela ulertzen dute. Horregatik, partaideek eta beraien oinordekoek erantzunkizun zibilari dagokionez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak,



2025 ORDIZIA MENDI LASTERKETA
TRAIL RUNNING EUSKADIKO TXAPELKETA EAF-FVA
laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak, ez salatzea eta kargu
horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

Parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere ez du ardurarik izango.

Parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsonen
eragindako kalte ororen erantzukizuna.

17.- PARTAIDEN KOPURUA

Probetako parte-hartzaileen gehieneko kopurua honako hau izango da:

21K: 200 pertsona

14K: 200 pertsona

8K: 100 pertsona

18.- ARAUDIAREN ONARPENA

Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, araudi hau onartzen dute. Bertan
agertzen ez dena EAF-FVA-ren araudia kontuan izanda ikusiko da.

Antolatzailea Txindoki AT da.

19.- APARKALEKUAK

Erakundeko ibilgailuentzat, osasun langileentzat, babes zibilekoentzat
aparkalekuak egokituko dira, eta aparkaleku publikoetaraino nola iritsi
kartelekin adieraziko da.